



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako koaderno

2
0
1
1
/
1
2

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Lehen Hezkuntzako 4. maila

MATEMATIKAKO GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Ikastaldea/Ikaskela:

Herria:

Data:

Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat dira $2 + 5$?

- A. 2
- B. 6
- ☒ C. 7
- D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat dira $2 + 5$?

- ☒ A. 2
- A. 6
- ☒ B. 7
- C. 11

Beste galdera batzuetan, aldiz, puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

Idatz ezazu zenbat erpin eta alde dituen triangelu batek.

.....

Galdera batzuk errazagoak dira, eta beste batzuk zailagoak. Galdera bat ez baduzu ulertzen segi lanean eta saiatu geroago.



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

BIZIKLETA

Karolinari bizikleta bat erosi diote. Asteaz
zehar, bere amarekin bizikleta
gainbegiratzeko aritu da. Arratsalde batean
Tarazonicaren Natur Bidean bizikletan
ibiltzera atera dira.



1. Bizikleta ordaintzeko, ondorengo txanpon eta billeteak erabili dituzte.
Zenbat euro ordaindu dute bizikleta?



241 €

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	241 241 €

2. Bizikletaren gurpilak forma hau du:

- A. Zirkulua
- B. Karratua
- C. Zilindroa
- D. Esfera



3. Karolinaren amak gurpil bat erosi du bere bizikletarentzat. Karolinak jakin nahi du bere bizikletak amaren bizikletak baino erradio gehiago dituen. Zenbat erradio ditu irudiko gurpilak?



.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	• 28 • 28 erradio


4. Kalkula ezazu, gutxi gorabehera, zer pisu izanen duen Karolinari erosi dioten bizikletak.

- A. 2 kg
- B. 10 kg
- C. 30 kg
- D. 60 kg



5. Begira ezazu natur bidean ageri den seinalea. Zenbat zirkunferentzia ikusten dituzu?

- A. Lau
- B. Bost
- C. Sei
- D. Zazpi



6. Karolina eta bere ama paseatzera atera dira 16:40an. Kronometroan ageri da bizikletaren gainean pasatu duten denbora. Gutxi gorabehera, zein ordutan iritsi dira etxera?

- A. 1 : 46an
- B. 17 : 26an
- C. 17 : 46an
- D. 18 : 26an




7. Karolina eta bere familia Tuteratik Tarazona aldera abiatu dira. Ordu batean 8 kilometro egin dituzte. Abiadura bera mantentzen badute, zenbat kilometro egingen dituzte bi ordu eta erdiz?

.....



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	• 20 • 20 km • 20 kilometro

8. Atsedean hartzeko, Lor aintzirara joan dira eta Karolinak bertan ikusi dituen bi ahate marraztu ditu. Bi ahateak posizio simetrikoan al daude? Zergatik?




.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Erantzuna zuzena da (Bai), baina ez du justifikazio zuzenik eman.
2	2	Erantzuna zuzena da (Bai), eta justifikazio zuzena eman du, adibidez: • Marrazkia erditik tolestuz gero, ahateak bat datoz. • Bata bestearen irudia dira, baina marrazkiaren erdian jarritako ispilu batek emanen lituzkeen bezala. • ...

9. Argazki honetan hiru hegazti migratzaile ikusten dira. Zer motatako triangelua ari dira osatzen?



- A. Triangelu angeluzuzena
- B. Triangelu aldekidea
- C. Triangelu isoszelea
- D. Triangelu eskalenoa

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Kodea	Kodea
0	0	Oker bat dago (A eta D erantzunak zuzenak dira), eta galdera betan behera utziko da, ondorio guztietarako.

10. Karolina, bere anaia Karlos eta gurasoak Tuterako jatetxe batera joan dira bazkaltzera. Begira ezazu irudia eta erantzun: zenbat euro ordaindu dute 4 menuen truke? Idatzi ematen dituzun urratsak eta soluzioa.

EGUERDIKO MENUAK (12:00-17:00)			
Ama eta Aita	1. MENUA	Plater konbinatua + Edaria + Postrea	11,50€
	2. MENUA	Ogitartekoa + Patata frijituak + Edaria + Postrea	8,20€
Karolina eta Karlos	3. MENUA	Sandwicha + Patata frijituak + Edaria + Postrea	8,30€
	4. MENUA	Hanburgesa + Patata frijituak + Edaria + Postrea	8,50€

$$\begin{array}{r}
 \text{Aitaren eta amaren} \\
 \text{menuak:} \qquad \qquad 11,50 \\
 \qquad \qquad \qquad \times \quad 2 \\
 \hline
 \qquad \qquad \qquad 23,00
 \end{array}$$

$$\begin{array}{r}
 \text{Karolinaren eta Karlosen} \\
 \text{menuak:} \qquad \qquad \quad 8,50 \\
 \qquad \qquad \qquad \times \quad 2 \\
 \hline
 \qquad \qquad \qquad 17,00
 \end{array}$$


$$\begin{array}{r}
 \text{4 menuen kostua:} \qquad \qquad 23 \\
 \qquad \qquad \qquad \quad + \quad 17 \\
 \hline
 \qquad \qquad \qquad 40
 \end{array}$$

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra eta planteamendu okerra edo osatu gabea.
1	1	- Ikasleak erantzun zuzena eman du (40, 40€), baina ez ditu idatzi behar diren urrats guztiak edo urratsik ez dago. - Ikasleak planteamendu osoa eta zuzena egin du, baina ez du emaitza zuzena eman, kalkuluetan <u>akats</u> <u>bakar</u> <u>bat</u> egin duelako eta ondorioz ez delako erantzun zuzenera iritsi.
2	2	Ikasleak planteamendu osoa eta zuzena egin du, eta erantzun zuzena eman du (40, 40€).

11. Karolinak aitari zenbat kilometro egin dituzten galdetu dio. Aitak kilometro-kontagailua begiratu eta erantzun dio:

- Bi zifren arteko batura 9 da.
- Hamarrekoen zifra batekoen zifraren erdia da.

Idatz ezazu zenbat kilometro egin dituzten.



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste edozein erantzun.
1	1	Ikasleak zifra zuzenak idatzi ditu, baina zifren ordena ez da zuzena (63 km).
2	2	Ikasleak zifra zuzenak idatzi ditu, ordena zuzenean (36 km).

ESKOLAKO JANTOKIA

Mariaren eskolan 150 ikasle gelditzen dira bazkaltzen. Denetarik jaten dute: arraina, haragia, fruta, esnekiak, pasta...


Bazkaldu ondoren, Haur Hezkuntzako ikasleak jolasgelara joaten dira.

12. Jantokian, egunero, 150 ikasle gelditzen dira bazkaltzen, baina gaur 30 mutiko eta 12 neska falta dira. Mahai bakoitzean 6 hurrek jaten dute. Zenbat mahai prestatu beharko dituzte gaur?

- A. 25 mahai
- B. 23 mahai
- C. 20 mahai
- D. 18 mahai

13. Begira ezazu eskolan, hilabete batean, jan dituzten elikagaien taula, eta jar itzazu datuak ondorengo grafikoan.


	Barazkia	Haragia	Arraina	Esnekiak	Pasta	Fruta
Zenbat aldiz	13	9	11	8	7	12




Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	3 barra edo gutxiago irudikatu ditu ongi.
1	1	4 edo 5 barra irudikatu ditu ongi.
2	2	6 barrak irudikatu ditu ongi, dagokien altueran. [Ez da zigortuko estetikagatik. Lerroak ere onartuko dira, barren ordeztan].

14. Jantokiko lurzoruak laukizuzen baten forma du. Luzera zabaleraren bikoitza da. Ondorengo zein laukizuzenek erakusten du jantokiko lurzorua?


A.




B.




C.



D.



15. Ondorengo irudian jantokiko lurzorian dauden baldosak ageri dira. Idatz ezazu baldosa guztien artean zenbat diren berdeak (zatikia).



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Zatiki hauetako edozein: • $24/72$ • $12/36$ • $8/24$ • $6/18$ • $4/12$ • $3/9$ • $2/6$ • $1/3$

16. Pasa den asteko egun batean, haur bakoitzak 96 g patata frijitu jan zituen. Egun horretan 146 ikasle joan ziren jantokira. Gutxi gorabehera, zenbat kg patata jan zituzten denen artean?

- A. 13 kg
- B. 14 kg
- C. 130 kg
- D. 140 kg

17. Mariak otorduan 30 cl-ko 3 baso ur edan ditu. Litro bat ur edan du guztira?

- A. Ez, 10 cl falta ditu.
- B. Ez, 910 cl falta ditu.
- C. Bai, 10 cl gehiago edan ditu.
- D. Bai, 910 cl gehiago edan ditu.



18. Hiruhilekoaren azken egunerako laranjada ekarri dute. Zaintzaileek mahai bakoitzean litro eta erdiko laranjada botila bat utzi dute. Mariak sei basotan



banatu du botilako laranjada. Zenbat cl laranjada dago baso bakoitzean?

- A. 15 cl
- B. 25 cl
- C. 150 cl
- D. 250 cl

19. Bazkaldu ondoren, Haur Hezkuntzako ikasleak jolasgelara joaten dira. Zoruan, irudian agertzen den tangram-a dago. Zein hiru piezarekin osatu daiteke karratu bat?

- A. 2, 3, 4
- B. 1, 3, 5
- C. 1, 6, 7
- D. 3, 6, 7



KANPALDIA

Lehen Hezkuntzako 4. mailako neskak eta mutikoak hiru egunetako kanpaldira joan dira. Aterpetxean jolasgelak, meteorologia estazioa, gelak, sukaldea... daude. Herrian frontoi bat dago.

20. Laugarren mailako ikasleak kanpaldira joan dira. Bakoitzak aterpetxe eta autobuserako 90 € ordaindu ditu. Aterpetxeko egonaldiaren gastua autobusaren bikoitza da. Zenbat euro ordaindu du bakoitzak autobuserako? Idatzi ematen dituzun urratsak eta soluzioa.

Bakoitzak autobuserako € ordaindu ditu.

1. modua:

90 euroak 3 zatitan banatu behar dira: zati 1 autobusa ordaintzeko eta 2 zati aterpetxerako. Beraz, autobusa heren bat kostatu zaie, hau da, 30 €.

2. modua:

Honela irudikatu dezakegu:

Autobusaren kostua	Aterpetxearen kostua	Aterpetxearen kostua
-----------------------	-------------------------	-------------------------

3 zatietako bat autobusaren kostuari dagokio. Beraz, autobusa 90en 1/3 kostatu da, hau da, 30 €.

3. modua:

Aterpetxeak 2 autobusek beste balio du. Guztira 3 autobus ordaintzea bezala da. 3 autobusek beste balio du kanpaldiak osotara, hau da, 90€.
Beraz, autobusa 90en 1/3 kostatu da, hau da, 30 €.

...

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra eta planteamendu okerra edo osatu gabea.
1	1	- Ikasleak erantzun zuzena eman du (30, 30€), baina ez ditu idatzi behar diren urrats guztiak edo urratsik ez dago. - Ikasleak planteamendu osoa eta zuzena egin du, baina ez du emaitza zuzena eman, kalkuluetan <u>akats bat</u> egin duelako eta ondorioz ez delako erantzun zuzenera iritsi.
2	2	Ikasleak planteamendu osoa eta zuzena egin du, eta erantzun zuzena eman du (30, 30€). [Erantzunera iristeko 3 modu erakutsi dira, baina beste planteamendu edo irudikapen batzuk zuzentzat onartzen ahal dira].

21. Herriko frontoiaren luzera zabaleraren hirukoitza da. Xabierri esan diote frontoiak 36 m neurtzen dituela luze. Zenbat metro neurtzen ditu frontoiak zabal? Idatzi ematen dituzun urratsak eta soluzioa.



.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	• 12 • 12 m • 12 metro

22. Begiraleak joko bat egin behar du frontoian. Lurrean serie hau idatzi du. Segida zuzen osatzen duen lehen taldeak afalorduan postrea aukeratuko du. Osa ezazu segida hau

42.500	44.000	45.500	47.000	48.500	50.000	51.500
--------	--------	--------	--------	--------	--------	--------

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	Ongi bete ditu 4 laukiak.


23. Afaldu ondoren, jolas gelara joan dira. Txoko batean erabil daitezkeen gauzak daude. Zer gorputz geometriko ageri dira irudian?



- A. Zilindroa, konoa eta esfera.
- B. Kuboa, piramidea eta prisma.
- C. Zilindroa, konoa eta prisma.
- D. Zilindroa, kuboa eta esfera.


24. Aterpetxean

meteorologia estazio bat dago. Aterpetxean 2010eko hilabete bakoitzeko batez besteko tenperaturak biltzen dituen grafiko hau dago. Urteko zein hilabetetan egin zuen 8 gradu baino gutxiago?



- A. Urtarrilean, otsailean eta martxoan
- B. Urtarrilean, otsailean eta azaroan
- C. Urtarrilean, otsailean eta abenduan
- D. Urtarrilean, azaroan eta abenduan.


25. Hilabete bakoitzeko prezipitazioen laburpena biltzen duen grafikoa ageri da baita ere. Gutxi gorabehera, zenbat litro prezipitazio egin ditu azken hiruhilekoan?



- A. 150 litro inguru

- B. 160 litro inguru
- C. 180 litro inguru
- D. 200 litro inguru

26. Gauez jolasean ibili dira eta okertu diren bakoitzean kubo bat utzi behar izan dute pilatxoan. Begiratu irudia eta erantzun. Zenbat aldiz okertu dira?



.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	1	• 30 • 30 aldiz